



OIARTZUNGO  
UDALA

## AUZO BILERAK 2023

**AUZO:** UGALDETXO

Data-Fecha	Hasiera ordua-Hora inicio	Bukaera ordua-Hora final
2024/10/17	19:00	21:10

### BILDUTAKOAK:

<b>Udal ordezkariak:</b> Representantes del ayuntamiento	Agustin Lekuona, Joana Mendiburu, Olaia Lasa, Edorta Fernandez			
<b>Herritarrak-</b> Vecinos/a	Euskaraz: 25		Elebitan: 1	
	Emakumezkoak-Mujeres:: 14		Gizonezkoak-Hombres: 12	
	<30 urte:	31-50 urte:	51-65 urte:	>66 urte:
		6	15	5

### AKTA-Acta

<b>Gaia-Tema</b>	<b>Ekarpena eta iruzkinak-Aportaciones y sugerencias</b>
<b>Aurkezpena-</b> Presetación	Batzarrean zehar landuko den gai zerrenda azaldu da. <i>Se ha expuesto el orden del día que se va a tratar a lo largo de la Asamblea.</i>
<b>Legealdirako proiektuak- Proyectos para la legislatura</b>	Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman dugu. Se han expuesto las líneas de trabajo principales o estratégicas <b>ABIAPUNTUA- Punto de partida</b> 1) Aurreko legealdietatik jaso duguna oso baikorra izan da, eta horrek lagundu egiten du: herriak udalean duen konfiantza, zorrik gabeko udala izatea, talde polita sortu dugu, teknikariek zinegotzietatik izan duten harrera oso ona izan da. Proiektuen aldetik ez gara zerotik hasi, aurreko taldeak egindako lanaren jarraipena egingo dugu. <i>Lo que hemos recibido de anteriores legislaturas ha sido muy positivo, y eso ayuda: la confianza del pueblo en el ayuntamiento, el ayuntamiento sin deudas, hemos creado un grupo muy bonito, la acogida de los técnicos con los concejales</i>



OIARTZUNGO  
UDALA

*ha sido muy buena. Por proyectos no hemos empezado de cero, seguiremos el trabajo realizado por el equipo anterior.*

- 2) Herritarrekin lan egiteko formula berriak bilatu behar ditugu, abiapuntua auzolana izango litzateke, UDALGINTZA HERRIGILEA, arriskuak aukera bihurtzeko udal politika. Herritarrak dira protagonista, udalak baliabideak jartzen ditu, baina ondoren sektore ekonomiko bat egon behar da bultzada emango diona.

*Tenemos que buscar nuevas fórmulas para trabajar con la ciudadanía, el punto de partida sería el trabajo vecinal, UDALGINTZA HERRIGILEA, la política municipal de convertir los riesgos en oportunidades. La ciudadanía es la protagonista, el ayuntamiento pone los recursos, pero luego hay que tener un sector económico que le dé impulso.*

- 3) Hauteskundeak irabazi ditugu, eta programan hitz emandakoa bete egin behar dugu.

*Hemos ganado las elecciones y lo prometido en el programa tenemos que cumplirlo.*

- 4) Krisi egoera orokor batean gaude, baina horren aurrean Oiartzundik bertatik egoerari buelta ematen hasi beharko genuke

*Estamos en una situación de crisis general, pero ante ello deberíamos empezar a dar la vuelta desde Oiartzun a la situación*

#### LEGEALDI PLANA- PLAN DE LEGISLATURA

3 lan-lerrotan banatuta dago: herritarrak (ongizatea, kultura, euskara, zaintza...), lurraldea (lurraren zein herriaren antolaketa) eta antolaketa (udaletxearen funtzionamendua eta zein giza-baliabide dituen)

*Se divide en 3 líneas de trabajo: ciudadanía (bienestar, cultura, euskera, cuidados...), territorio (organización del suelo y del pueblo) y organización (funcionamiento del ayuntamiento y sus recursos humanos)*



OIARTZUNGO  
UDALA

## LAN ILDO ESTRATEGIKOAK- LÍNEAS ESTRATÉGICAS DE TRABAJO

- 1) ELIKADURA BURUJABETZA: gaur egun, udalak laguntzen dituen hainbat egitasmo daude martxan. Udalak hasierako bultzada eman die elkarte hauei, eta ondoren beren bidea egin dute. Herriko lurrak erosten jarraituko dugu 1.sektorea bultzatzeko, herriko sukaldeak hornitu nahi ditugu herrian bertan ekoiztako jakiekin (herriko ikastetxeak, zahar etxea...). Herrian badaude ekimen ugari beren kabuz proiektuak bultzatzen ari direnak, baina ez dute foro komunik elkarlanean aritzeko.

*SOBERANÍA ALIMENTARIA: en la actualidad se están llevando a cabo diferentes proyectos de ayuda municipal. El Ayuntamiento ha dado un impulso inicial a estas asociaciones y han seguido su camino. Con el fin de impulsar el primer sector trabajaremos en la compra de terrenos, se pretende dotar a las cocinas locales de alimentos producidos en el municipio (colegios locales, residencia de ancianos...). En el pueblo hay muchas iniciativas que están impulsando proyectos por sí mismas, pero no tienen un foro común de colaboración.*

- 2) ENERGIA BURUJABETZA: sortu berri da Argitturri kooperatiba (hiruki horren parte den zutabe sozioekonomikoa). Udal mailan zein herri mailan neurriak hartu behar dira klima aldaketa dela-eta.

*SOBERANIA ENERGÉTICA: se acaba de crear la cooperativa Argitturri (pilar socioeconómico que forma parte de este triángulo). Hay que tomar medidas tanto a nivel municipal como a nivel local sobre el cambio climático.*

- 3) MUGIKORTASUN JASANGARRIA: herrian ohiturak aldatzen hasi behar dugu. Bizikletak lehenesteko plana egiteko asmoa dago (aparkalekuak...). Beste asmo bat da Arraguan intermodala eskatzea, oiartzuarrok aukera izan dezagun Euskal Herriko hainbat lekutara joateko: Gasteiz, Bilbo, Iruñea...

*MOVILIDAD SOSTENIBLE: debemos empezar a cambiar los hábitos en el pueblo. Se prevé realizar un plan de priorización de bicicletas (aparcamientos...). Otra*



OIARTZUNGO  
UDALA

*de las intenciones es pedir una parada intermodal en Arragua, para que los ciudadanos de Oiartzun tengamos la oportunidad de ir a diferentes lugares de Euskal Herria: Vitoria, Bilbao, Pamplona...*

- 4) OSASUNA ETA ZAINZTA: Zaintzadi programaren inguruan hitz egin dugu, bakardade ez hautatuan dauden herritarrak laguntzeko egitasmoa da. 22 herritarrek eman dute dagoeneko izena ekimen honetan. Zaintzadiren ideia da udalak laguntzea, baina herritarren sare baten laguntzarekin batera. Zaintza askotan osasun arazoak konpontzearekin lotuta egoten da, baina udalaren ardura da bizitza aktiboa sustatzea, bakardadeari laguntzeko modua ere baita horrelako ekimenak antolatzea.

*SALUD Y CUIDADOS: Hemos hablado sobre el programa Zaintzadi, un programa de apoyo a la ciudadanía en soledad no elegida. 22 ciudadanos ya se han apuntado a esta iniciativa. La idea de Zaintzadi es ayudar que el ayuntamiento ayude pero con la colaboración de una red ciudadana. En muchos casos el cuidado está relacionado con la resolución de problemas de salud, pero es responsabilidad del Ayuntamiento promover la vida activa, la forma de contribuir a la soledad y la organización de este tipo de iniciativas.*

- 5) KULTURA EUSKARAZ: bizi ditugun garaiek euskalgintza hauspotzeko beharra erakusten dute (etorkinak, euskararen aurkako erasoak...). Landetxe dagoeneko eraiki dugu, eta orain kultura plana egiteko momentua da. Gazte sortzaile ugari dugu herrian. Irakurzaletasuna sustatzeko aukera berriak aztertuko ditugu. Ondarea balioan jarriko dugu, eta udalaren lokalak eskura jarriko ditugu herriko kultur-sorkuntza bultzatzeko.

*CULTURA EUSKARAZ: los tiempos que vivimos demuestran la necesidad de impulsar nuestro idioma, el euskera. Hemos construido el edificio Landetxe y ahora es el momento de hacer el plan cultural. Tenemos muchos jóvenes que crean en el pueblo. Estudiaremos nuevas posibilidades para fomentar la lectura. Vamos a seguir valorando el patrimonio y trabajaremos para poner a*



OIARTZUNGO  
UDALA

	<p><i>disposición de los ciudadanos-ciudadanas locales municipales para impulsar la creación cultural del municipio.</i></p> <p>LEGEGINTZALDIAN MARTXAN DIREN ETXEBIZITZA SUSTAPENAK. PROMOCIONES DE VIVIENDA EN FUNCIONAMIENTO DURANTE LA LEGISLATURA: Altzibar zein Iturriozko promozioen berri eman da. Elizaldeko Urkabe Baitako eremuaz hitz egin da. Babes ofizialekoetan interesa izanez gero, Etxebiden eman behar da izena, eta Altzibarreko tasatuetarako urriko plenoan irekiko da izena emateko epea.</p> <p><i>Se informa de las promociones tanto de Altzibar como de Iturrioz. Se habla de la zona de Urkabe Baita de Elizalde. En caso de estar interesado/a en las VPO, la inscripción se realizará en Etxebide y el plazo de inscripción se abrirá en el pleno de octubre para las tasadas de Altzibar</i></p> <p>Udal etxebizitza bulegoaren inguruko informazioa eskaini da. <i>Se ha ofrecido la información sobre la oficina municipal de vivienda.</i></p> <p>UDAL ORDENANTZEN IGOERA- INCREMENTO DE LAS ORDENANZAS MUNICIPALES: %1,5 igoko dira tasak. Udalak sekulako ahalegina egin du azken urteetan ez igotzeko. Hala eta guztiz ere, KPIa baino gutxiago igo dugu gure herrian, azken batean, oreka bilatu behar dugu kalitatezko zerbitzuak izateko.</p> <p><i>Se incrementarán las tasas en un 1,5%. El Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo en los últimos años para no subirla y esa subida ha sido menor que el IPC, en definitiva, tenemos que buscar el equilibrio para tener servicios de calidad.</i></p>
<b>2024ko aurrekontu aurreikuspena- Previsión presupuestaria 2024</b>	<p><b>AURREKONTUA- PRESUPUESTO</b></p> <p>Lan ildo eta erronka hauentzat 20.200.000 euro ditugu. Arloz arlo ondorengoa izango da banaketa: Herritarren arloak %49, lurraldeak %36 eta antolaketak %15.</p>



OIARTZUNGO  
UDALA

	<p><i>Para estas líneas y retos contamos con 20.200.000 euros. La distribución por áreas será la siguiente: 49% para gastos de población, 36% para gastos de territorio y 15% para gastos de organización.</i></p> <p>Honakoak izango dira <b>inbertsio nagusiak</b>: mugikortasuna (bidegorri sarea, aparkaleku seguruak), energia (efizientzia energetikoan pausuak eman, energia berriztagarrien instalazioak), liburutegia birdiseinatu, herritarrentzako arreta gune bakarra jarri udalean, futbol zelai artifizial berria, udal eraikinen mantenua, hirigintza (Urkabe baitako etxeak eta Altxibarko promozioa), kulturgintza (kultura plana landu eta Landetxe erreferente bihurtu), ongizatea (bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroa).</p> <p><i>Las principales inversiones serán en la movilidad (red de bidegorris, aparcamientos seguros), la energía (dar pasos en eficiencia energética, instalaciones de energías renovables), el diseño de la biblioteca, establecer un único punto de atención al ciudadano en el ayuntamiento, el nuevo campo de fútbol artificial, el mantenimiento de los edificios municipales, urbanismo (viviendas de Urkabe y promoción de Altxibar), la actividad cultural (elaborar el plan cultural y crear en la comarca en un centro de día para personas en situación de exclusión).</i></p>
<b>Auzoa-El barrio</b>	<p><b>Futbol zelaia nola geldituko da?</b> Naturala artifizial bihurtuko da eta auzoan Amenabarrek etheen proiektua aurrera eramaten duenean, futbol 8 ko bat egingo da zelai handiaren paraleloan, ondoan, beste zentzuan. <i>¿Cómo quedará el campo de fútbol? El natural se artificializará y cuando Amenábar lleve a cabo el proyecto de casas en el barrio, se realizará un fútbol 8 paralelo al gran campo, al lado, en otro sentido.</i></p> <p><b>Mamuteko atzeko barandilla nola dago?</b> Mamutekin udalak akordioa itxi zuen, komunitate handia da Mamut, zaila da elkar ulertzea baina ados jarri dira eta konponduko dute. Obrak hasi berri dira. Bide batez, Zuaznabar poligonora arte bidegorria zabalduko da. <i>¿Cómo está la barandilla trasera de mamut? Con Mamut el ayuntamiento cerró el acuerdo, Mamut es una gran comunidad, es</i></p>



OIARTZUNGO  
UDALA

*difícil entenderse pero se han puesto de acuerdo y lo van a arreglar. Las obras han comenzado. Así mismo, se abrirá un bidegorri hasta el polígono Zuaznabar.*

**Abiadura handiko trenak nola eragiten dio Ugaldetxori?** Hasieran ibilbide bat ekarri zuten, eta duela bi urte, etorri ziren beste aukera batzuekin. Eskuartean duguna Tajotik (Tajo lekualdatuz) Ertzainen ondotik (Mamuten zutabe batekin) Mendin zaharretik pasatzen da Irun ta Pasaia aldera. Ibilbide horri alegazioak egin zizkion Udalak proiektua zalantzan jarriz. Alegazio horien erantzuna jaso berri dugu, alegazioa atzera bota dute eta orain berriro alegatzeko aukera irekiz. Beste ildo batzuetatik alegatuko da, baino egoera zaila da. Oiartzundik merkantziak soilik pasako lirateke eta denboran luzatzea gure alde da. *¿Cómo afecta el tren de alta velocidad a Ugaldetxo? Al principio trajeron un recorrido y hace dos años vinieron con otras opciones. Lo que tenemos entre manos pasa por Tajo (desplazando a Tajo) junto a los Ertzainas (con una columna de Mamut) por el antiguo Mendin hacia Irún y Pasaia. El Ayuntamiento realizó alegaciones a este itinerario cuestionando el proyecto. Hemos recibido respuesta a dichas alegaciones, que han sido desestimadas y ahora se abre la posibilidad de volver a alegar. Se alegará en otras líneas, pero la situación es difícil. De Oiartzun sólo pasarían las mercancías y prolongarlas en el tiempo es nuestro favor.*

**Kalexia Plazako portxean moto asko uzten dira, ez dago ondo seinalizatua parkina, eta bizikletentzat ez dago lekurik. Bestalde Elbarrien plazan ondoan, leku bat dago eta jendeak aparkatu egiten du, agian zerbait jarri daiteke, elbarrituentzat ere arazoa da.** Udalak jakinarazi du bizikletak aparkatzeko aukerak aztertzen direla. *En el porche de la Plaza Kalexa se dejan muchas motos, el parking no está bien señalado y no hay sitio para las bicicletas. Por otra parte, junto a la plaza de los minusválidos hay un lugar y la gente aparca, quizás se pueda poner algo, también es un problema para los minusválidos. El Ayuntamiento informa que se estudian las posibilidades.*

**Ugaldetxo eta Ibarre arteko erreka belarrez eta zaborrez beteta dago, agian Uraren agentzia edo aldundiarekin garbitasun lan bat egin daiteke. Basoak erreka jaten du, zerbait egin daiteke?** Urzain eta Uraren agentziakin hitz egingo



OIARTZUNGO  
UDALA

du Udalak gaia aztertzeko eta konpontzeko. *El arroyo entre Ugaldetxo e Ibarre está lleno de hierbas y basuras, tal vez se pueda llevar a cabo una labor de limpieza con la agencia o diputación del Agua. El bosque como el río, ¿se puede hacer algo? El Ayuntamiento hablará con las agencias de Urzain y Agua para estudiar y resolver el tema.*

**Mendibilen hainbat kontu**, batetik atzeko aldean, Txara aldeko erreka ondoko bidexka oso irristakorra dago. Bestetik, goiko bidean eta plazan bertan, dauden zuhaitzak kimatzeko beharra dute, adarrak etxeetara iristen baitira.

Autobus geltokitik behera, frontoiaren ondoko maldan, zuhaitz handi pare bat daude, itzala egiten dute eta malda irristakorra dago. Eta azkenik, frontoiaren ondoko eskailerak oso egoera txarrean daude. En Mendibil, por un lado, en la parte trasera, se encuentra un sendero muy resbaladizo junto al arroyo Txara. Por otro lado, en la vía alta y en la misma plaza, necesitan podar los árboles existentes, ya que las ramas llegan a las casas. Por debajo de la estación de autobuses, en la ladera que hay junto al frontón, hay un par de árboles de gran tamaño que hacen sombra y hay una pendiente deslizante. Por último, las escaleras junto al frontón se encuentran en muy mal estado.

**Ugaldetxoko proiektuaren harira, linea maestrak mantentzen dira?** Bai mantentzen dira, aldaketa batzuekin, etxeen distribuzioa aldatzen da. Gauzak definituago daudenean auzora bertaratuko da udala auzotarrei proiektua azaltzera. *¿Se mantienen las líneas maestras en el proyecto de Ugaldetxo? Sí se mantienen, con algunos cambios, se modifica la distribución de los hogares. Cuando las cosas estén más definidas, se acercará al barrio para explicar el proyecto a los vecinos.*

**Peatonala mantentzen da?** Bai, Altzibarren antzera geratuko litzateke. *¿Se mantiene el peatón? Sí, quedaría como en Altzibar.*

**Lehenengo urtean egin zen frontoi txiki bat jartzeko proposamena, egongo da aukera gune estali bat lortzeko? Frontoi bat edo?** Udalak auzo guztietan gune estali bat jartzeko asmoa duela jakinarazi du. Dena batera ezingo denez egin,





OIARTZUNGO  
UDALA

denbora bat beharko dela aurreratu du. *La propuesta de un pequeño frontón que se hizo el año pasado, ¿habrá posibilidad de conseguir un espacio cubierto? ¿Un frontón? Informa de la intención del Ayuntamiento de habilitar un espacio cubierto en todos los barrios. Al no poder hacerlo todo a la vez, adelanta que se necesitará un tiempo.*

**Ugaldetxo izan da txikizio gehien eduki duen auzoa, lanpostu asko ekarri du, eta auzoak eman duenakin, jasotzen duenantzat, frontoi txiki bat ez da hainbeste eskatzea.** Etxebizitza berriak eraikiko diren gunean frontoia jartzea ez da udalaren eskumena, kontzesio pribatua da. Mendibilen dagoen frontoia estaltzea aukera bezala planteatu zen, udalak jakinarazi du auzoetan gune estaliak egiteko asmoa duela poliki poliki. *Ugaldetxo ha sido el barrio que más destrozos ha tenido, ha traído muchos puestos de trabajo, y con todo lo que ha dado el barrio, un pequeño frontón no es tanto pedir. La instalación de un frontón en la zona de construcción de nuevas viviendas no es competencia municipal, es una concesión privada. Cubrir el frontón situado en Mendibil se planteó como una opción, por lo que el Ayuntamiento ha anunciado su intención de habilitar espacios cubiertos en los barrios.*

**Mendibilen aparkalekua kendu zen autobus geltokia egiteko eta musika jotzera etortzen direnak, plazarik gabe gelditzen dira. Lehen aparkalekua zen lekuan belarra jarri zen eta plazak kendu ziren.** *Se suprimió el aparcamiento de Mendibil para la parada de autobús y los que vienen a tocar la música se quedan sin plaza. Donde antes había aparcamiento se instaló hierba y se suprimieron las plazas.*

**Kotxearekin Isastitik jaistean bidegorria eta karreteren arteko konfluentzia handia dago, eta oso arriskutsua da. Arraro xamar gelditu da, eta batez ere arriskutsu. Zerbait dago aurreikusia? Amenabarrek obrak egitean eta peatonalizatzean kotxe gutxiago ibiliko da. Bitartean zerbait egin daiteke? Zaila dela erantzun du Udalak, bere garaian buelta asko eman ziren, eta soluzio zaila du. Gaia berriz aztertuko duela jakinarazi du udalak. *Al descender con el coche***



OIARTZUNGO  
UDALA

*de Isasti hay una gran fluidez entre el bidegorri y las carretas y es muy peligroso. Se queda raro y especialmente peligroso. ¿Hay algo previsto? Habrá menor circulación de coches despues de las obras y peatonalización de del barrio que hará Amenabar. ¿Mientras tanto se puede hacer algo? El Ayuntamiento responde que es difícil, en su día se dieron muchas vueltas y tiene una solución difícil. El Ayuntamiento informa que volverá a estudiar el tema.*

**Matteoren ondoan seinale bat ateratzen da errepidera, gorago jarri edo lekualdatu daiteke?** Hori Aldundiaren eskumen dela jakinarazi du udalak, zaila izan arren eskaera egingo duela jakinarazi du. *Junto a Mateo sale una señal a la carretera, ¿se puede subir o desplazar? El Ayuntamiento informa que es competencia de la Diputación, que aunque es difícil lo va a intentar.*

**Juansendo kalean zaborretarako zintzilikailuak karreteraren beste aldean daude, arriskutsua da abiadura handian pasatzen direlako autoak. Baden bat edo zerbait jarri daiteke abiadura kontrolatzeko?** Irtenbide posibleak aztertuko dituela jakinarazi du udalak. *En la calle Juansendo los colgadores de basura se encuentran al otro lado de la carreta, lo cual es peligroso porque los coches pasan a gran velocidad. ¿Se puede poner alguno o algo para controlar la velocidad? El Ayuntamiento informa que estudiará posibles soluciones.*

**Heltaren ikastaroak beteta daudela, lokalekin arazoak daudela, ea ze edo zer egiteko asmorik dagoen galdetu da.** Demanda handia dute eskaintza hauek eta gai aztertuko dela jakinarazi da. Lokalen inguruan, eraberritze lanak egiten ari da udala urtez urte. *Se pregunta qué se piensa hacer cuando los cursos de Helta están completos, hay problemas con los locales. Estas ofertas tienen mucha demanda y se informa que se estudiará el tema. En el entorno de los locales, el Ayuntamiento está realizando cada año obras de reforma.*

**Oiartzundik Donostiara eta ospitalera joateko autobusen ibilbide eta maiztasunez galdetu zen.** Udalak jakinarazi du linea berriak eta daudenen maiztasunak hobetzeko eskaera egin ziola Aldundiari. Proiektua aurkeztu zenean Aldundiak ez zuen udalak egindako proposamenik onartu. Gaur gaurkoz



OIARTZUNGO  
UDALA

Oreretatik ospitalera doan linea zabalduko dutela bakarrik dakigu, Oartzundik pasako da ordu betero. Momentu honetan gure eskualdeko zerbitzua emateko enpresen arteko lehiaketa egiten ari dira. Prozesu hori amaitzean jarriko da linea berria martxan. *Se preguntó por el recorrido y frecuencia de los autobuses desde Oiartzun a Donostia y al hospital. El Ayuntamiento informa que solicitó a la Diputación la mejora de las nuevas líneas y de las frecuencias existentes. En la presentación del proyecto la Diputación no aceptó ninguna propuesta del Ayuntamiento. Hoy solo sabemos que la línea de Orereta al hospital pasará por Oiartzun cada hora. En estos momentos se está realizando un concurso entre empresas para la prestación del servicio de nuestra comarca. Una vez finalizado este proceso se pondrá en marcha la nueva línea.*

**Groseko autobus geltokien inguruan kexa jaso da itzulerako geltokia auzoaren beste aldean dagoelako.** Udalak Donostiako gunean eskumenik ez duela jakinarazi du. Hala ere, horrelako kexa eta proposamenak herritar bezala aldundian egiteko gonbitea luzatu du udalak. *En cuanto a las paradas de autobús de Gros, se ha recibido una queja por la ubicación de la estación de retorno al otro lado del barrio. Informa que el Ayuntamiento no tiene competencia en la zona de Donostia. No obstante, el Ayuntamiento invita a formular este tipo de quejas y propuestas como ciudadanos en la Diputación.*

**Jai Batzordeen arteko komunikazioa eta elkarlana bultzatzeko bilera bat egitea proposatu da.** Udalak egoki ikusi du proposamena. *Se propone realizar una reunión para fomentar la comunicación y colaboración entre las Comisiones de Fiestas. El Ayuntamiento considera adecuada la propuesta.*

#### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,27
Ponentes: Las explicaciones	
Bilera ongi gidatu da	8,20
Ponentes: Dirección o orientación de la reunión	



OIARTZUNGO  
UDALA

Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,27
Metodología	
Auzotar kopurua	6,40
Asistencia	
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,36
Participación	
Saioa probetxugarria izan al da?	7,40
¿Ha sido provechoso?	
Egunaren egokitasuna	8,53
¿Día apropiado?	
Orduaren egokitasuna	8,53
¿Hora apropiada?	
Lekuaren egokitasuna	8,93
¿Sitio adecuado?	